

## Tabakalera Emakumeen Etxea egiteko eskaera

Donostiako Emakumeen eta Hiriaren Batzarrak Tabakalera Emakumeen Etxea egiteko eskaera egin du. Ekimenak emakumeen parte hartze sozio-kulturala eta politikoa bultzatzea du helburu nagusi. 1996an abiatu zen aipatu batzarra, eta orduz geroztik emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko bidean zenbait proposamen egin ditu.

## Bageraren batzarra

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkar-teak batzar nagusia egingo du larunbatean, hilak 12, elkartearen egoitza berrian -Katalina Eleizegi 36, behe-10:00etan. Bageraren eta Donostiako Komunikabideak-en iazko balantzea eta 2004ko aurrekontuak eta plangintzak izango dituzte hizpide. Donostian eguneroko bat egiteko proiektuaz ere hitz egingo dute.

## Garagardo feria abian

XI. Garagardo Feria joan den ostegunean, hilak 10, abiatu zen. Intxaurren Gastronomia Taldeak antolatzen du feria eta hilaren 19ra arte iraungo du.

Aurten, Intxaurrendoko Justo Elizaran pasealekuan egin beharrean, Garberako aparkalekuan egiten ari da feria. *"Arazoak izan ditugu auzotarrekin eta aparkatzeko lekuekin. Beraz, lekuz aldatzea erabaki dugu. Aurtengo tokiak zenbait abantaila ditu: handiagoa da eta ez da aparkatzeko arazorik izango. Hala ere, badu alde txarra, auzoko giroa galdu dugu eta"*, dio Juan Ciria Intxaurren Gastronomia Taldeko kideak. Garberan, 75 metroko luzerako eta 20 metroko zabalerako karpa jarri dute, eta bertan 1.200 lagunek afaltzeko toki dago.

Iazko ferian, 30.000 litro garagardo saldu zituzten,



eta batez beste, 3.000 lagun bertaratu ziren egunero. Aurten, antolatzaileek joan den urtean adina bisitari edo gehiago izatea espero dute.

38 garagardo marka dastatu ahal izango dira, hainbat herrialdetan ekoizitakoak: Euskal Herria, Alemania, Ingalaterra, Irlanda... Aurreko urteetan bezala, Alemaniako musika tradizionala entzuteko aukera izango da eguneroko Musicasten taldearekin.

# LEHIAKETA

Hamar sarrera ditugu Pentacion taldearen "Excusas" antzezlanaren ikusteko. Emanaldia ekainaren 17an, osteguna, 20.00etan, Antzoki Zaharrean izango da. Sarrerak eskuratu nahi izanez gero, deitu ekainaren 14an, astelehena, eguerdiko 12.00etatik aurrera 943 467181 telefono zenbakira.

Joan den asteko irabazleak:  
"Zaharregia, txikiegia agian"

Xila Pihlstrom     Martin Mendizabal  
Lore Goenaga     Bittor Aiala

Elhuyarrek emandako "Gipuzkoa zure esku" jokoaren irabazlea:

Martin Mendizabal

## euskararen donostia

Donostia 1980-1981-1982



Donostia 1980-1981-1982  
Ayuntamiento de San Sebastián

### Antzerkia

- Euskarazko bakarrizketak  
Ekainaren 17an, 20:30etan  
Antiguako Mandragora  
tabernan

### Haur antzerkia kalean

- Kiki eta Moko pailazoak  
Ekainaren 17an, 18:00etan  
Josu Artetxe plazan (Altza)
- Irrintzi txotxongiloak  
Ekainaren 17an, 17:00etan  
Josu Artetxe plazan (Altza)

### Hitzaldia

- Nekazaritzaren etorkizuna  
arriskuan dago  
Eneko Karrera EHNEko  
lehendakaria  
Ekainaren 15ean, 19:30etan  
Koldo Mitxelena kulturunean

### Musika-Olerkia

- Zaharregia, txikiegia agian  
Parte hartzaileak: Kirmen  
Uribe (testuak), Mikel  
Urdangarin (abestiak, gitarra),  
Bingen (biolina), Rafa  
Rueta (gitarra elektrikoa),  
Ibon Saenz (bideo-hockeya)  
eta Mikel Valverde (Irudiak)  
Ekainaren 17an, 20:30etan  
Lugaritz kultur etxean  
Sarrera: 6 €

euskaraz.net